

Mezua:

2016ko Kooperatiben Nazioarteko Eguna

Kooperatibak: etorkizun iraunkor baten alde ekitearen boterea



[Deskargatu mezua www.coopday.coop webgunean](http://www.coopday.coop)

Jaso zure ekimenak

www.coops2030.coop
webgunean

2016ko uztailaren 2tik aurrera, jaso itzazu www.coopsfor2030.coop webgunean zure kooperatibak Garapen Iraunkorraren Helburuak lortzeko eman dituen urratsak

Gaur egun zein iraganean egindako ekimen guztiek dute lekua.

Lagundu kooperatiben ekimenen erregistro bateratu bat sortzen eta iraunkortasunean liderrak garelako erakutsiko dugu!

Lehiaketa

Jaso zure ekimenak uztailaren bertan eta Kooperatiben Nazioarteko Goi-bilerara joateko sarrera bat irabazteko aukera izango duzu!

www.summit.coop

Uztailaren 2an, Kooperatiben nazioarteko egunean, Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren hamazazpi Helburuak (GIH) lortzeko kooperatibek egin duten ekarpena ospatuko da. Pobrezia desagerrarazteko, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta mundu osoan berdintasuna eta gizarteratzea ziurtatzeko agenda anbiziotsua osatzen dute aipatu helburuek.

Pertsonen beharrezko erantzuteko balio eta printzipioetan oinarrituta dauden enpresak diren heinean, kooperatibek funtsezko lana egiten dute GIHak lortzeko bidean. Horien artean, besteak beste, arazo hauek aurkituko ditugu: gosea, elikagaien segurtasuna, genero-berdintasuna, bai eta garapen, ekoizpen eta kontsumo iraunkorra ere.

GIHak Hamarkada Kooperatibo baterako Ekintza-planean jasotako helburu ugarien isla dira. Plan hori kooperatibek kooperatibentzat egindako estrategia orokor bat da, helburu hauek dituen: kooperatibak ekonomia, gizarte eta ingurumen-arloko iraunkortasunaren lider ezagun izatea, pertsonen eredu gogokoena izatea eta hazkunde handiena duen enpresa-eredua izatea.

2015ean GIHak bere egitean, NBEko kide diren estatuak kooperatibek sektore pribatuan eragile gisa egiten duten lana aitortu zuten testuan.

Kooperatibei politika orokorrean egin zitzaizkien aitortza hori aintzat hartuta, eta kooperatiben eguneroko lanerako GIHek daukaten garrantzia ahaztu gabe, Aliantzak mundu osoko kooperatibistei dei egiten die GIHak ezartzeko lanari ekin diezaioten. Horretarako, Kooperatibak 2030era Bidean plataforman parte hartzeko gonbita egiten die. Aliantzaren kanpaina honen xedea mundu osoko kooperatibak batzea da, elkarrekin etorkizun iraunkor bat sortu dezaten.

Plataforma horri esker, kooperatibek GIHak ezagutu ahal izango dituzte, horiek lortzeko helburuak zehazteko eta haien jarraipena egiteko moduan egongo dira, eta beste kooperatiba batzuen konpromisoen berri izateko aukera izango dute.



Kooperatibak haien zerbitzuak eskaintzen dituzten komunitateetan sustraituta daudenez, aukera paregabea da mundu mailako lankidetzeta abiarazteko, interes partekatuak sustatzeko helburuarekin.

Guk denok argi daukagu kooperatibek etorkizun iraunkor baten alde ekiteko gaitasuna daukatela.

Partekatu dezagun botere hori munduarekin.

Bat egin gaur bertan www.coopsfor2030.coop webgunearekin, eta jakinarazi mundu osoari, #coopsday traolarekin, zure kooperatibak nola ospatzen duen 2016ko Nazioarteko eguna.

Kooperatibek garapen iraunkorraren alde egindako ekarpenen adibideak

- Japoniako kooperatibek 5,4 milioi pertsonarentzako enplegua sortzen dute, langabezia dagoen herritar kopuruaren ia bikoitza.
- Kenian, aurrezki eta kreditu-kooperatibek administrazioaren laguntzarik gabe eskaintzen duten mailegu mota nagusia eskolako matrikuletarako da, haien kideen seme-alabek hezkuntza jasotzeko aukera izan dezaten.
- 2003. urtetik, Coop Italiaren Buon Fine proiektuak saldu gabeko elikagaiak bildu ditu, oraindik egoera onean daudenak, eta ongintzazko erakundeei eta beharrak dituzten herritarrei eman dizkie. Programa horren bidez, Coop Italiak jakien 3.544 tona metriko hondakin sortzea eragotzi du eta beharrian-egoeran dauden 150.000 pertsona inguru lagundu ditu.
- Argentinan, Unión Quebrada y Valles Ltda (Cauqueva) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Artisautza kooperatibak patata indigenak landatu, prozesatu eta merkaturatzeko laguntza ematen die nekazariei, eta bizirauteko bitarteko tradizionalak sustatzeko museo bat eta jatetxe txiki bat ditu.